

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kasimiro Plazaola Zubierrementeria

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1921-2010)*

Aurkibidea



Biografia



Soraluzeko Errekalde kalean jaio zen. Ama Elgetakoa eta aita eskoriatzarra zituen. Aitak mandatari lanean jarduten zuen, zaldiarekin eta orgarekin Bergarara, Eibarrera eta Elgoibarrera paketeak eramaten. Maristen eskolan ikasi zuen zazpi urtetatik gerra hasi zen arte. Gerra denboran Elgetako Abadekoa baserrian egon zen babestuta. Gerraostean, Amutxastegi lantegian ekin zion lanean, torlojuak eta bonbentzako pieza txikiak egiten. Kanoi lantegian ere ibili zen soldadutzara joan aurretik. Soldadutzatik bueltan aitarekin hasi zen mandatari lanetan. Kamioia erosi eta bere kontura jardun zuen garraioan. “Trefilaciones Lete” lantegiko lino kamioi japoniarra gidatzen eman zituen bere azken lan urteak. Orduko errepideei, kamioiei eta garraioari buruzko azalpen batzuk ematen ditu. Markinatik Soraluzera neskame etorritako Demetri Arrietarekin ezkondu zen eta seme bi izan zituzten.

Zintak

SOR-075

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-11-04
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com